

## University Educators for Sustainable Development (UE4SD) - Prentsa oharra

### **Argitalpen berri batean, unibertsitate hezitzaileek iraunkortasunerako hezkuntzaren arloan garapen profesional egokia izateko jardunbideak bildu dituzte**

**2015eko azaroaren 23an, “La Corrala” kultur etxean**

**Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, Madril, Espainia**

2015eko azaroaren 23an aurkeztu zuten *University Educators for Sustainable Development* (UE4SD) proiektuaren *Leading Practice Publication* (LPP) dokumentua, proiektu horren inguruko urteko bileran, Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren “La Corrala” kultur etxean. Proiektuaren bigarren fasetik sortu da argitalpena, baliabideen garapenari buruzkoa; Europako goi mailako hezkuntza erakundeetan garapen iraunkorrerako hezkuntza (GIH) lantzen duten 33 herrialdeetako 53 bazkideren esperientzia biltzen du. Agirian, proiektuan esku hartzen duten herrialdeetako unibertsitateetan GIH nola jorrotzen den azaltzen da, eta arreta berezia jartzen zaio UNECEk GIHren arloan dituen gaitasunei; ildo horretatik, unibertsitate hezitzaileek GIHren esparruan profesionalki garatzeko bide egokiei buruzko 13 adibide laburbiltzen dira. Halaber, Europako unibertsitateetako garapen profesionaleko programetan GIH nola ezarri ere aztertzen da. Esaterako, agiriak informazioa ematen du GIHren arloan garapen profesional nabarmena izateko bide desberdinei buruz eta erakundeetan hori lortzeko egin beharrekoari buruz.

LPPk unibertsitate hezitzaileek GIHren arloan izaten duten garapen profesionalaren kontzeptua azaldu du, metodologia gakoak deskribatuz, prozesu eta baliabideak identifikatuz eta proiektuaren lau eskualde europarretako (Iparraldea, Hegoaldea, Ekialdea eta Mendebaldea) adibide onenak emanez, garapen horren aurrerabidea dokumentatzeko. Argitalpenak, “Ikasitakoak” atalean, alor horretan aurrera egiteko zenbait printzipio eta bide orokor jasotzen ditu. Amaieran, mezu gakoak eta gomendioak ematen dira unibertsitate hezitzaileen garapen profesionalean GIH lantzeko.

Europako 10 herrialdeetako jardunbide egokien 13 adibideen laburpenak erakusten du badaudela unibertsitate langileek GIHren arloko gaitasunak garatzeko aukera bikainak. Esperientzia horiek eredugarri dira Europa osoko hainbat kultur testuingurutan egitasmo berriak abiatzeko. Izan ere, egitasmo berri horiek beharrezkoak dira, unibertsitate langile gehienek ez baitute aukerarik GIHren arloan garatzeko. Dirudienez, hainbat konpromiso mailatako garapen profesionalaren inguruko egitasmo arrakastatsuak gauzatzeko, euskarri ona dira egungo sareak: hala nazioarteko partzuergo handiak nola erakunde sare edo ikas komunitate txikiak.

GIHn eta garapen profesionalean esku hartzen duten guztientzat prestatu da argitalpena, bereziki unibertsitateko kideentzat. Horrenbestez, agiri garrantzitsua da irakasten duten, ikaskuntza babesten duten edo unibertsitate langileen garapenean lan egiten duten guzti-guztientzat. Erakunde ordezkariak eta unibertsitate sistemari buruzko politiken ordezkariak ere balia dezakete, GIHren printzipioak unibertsitate kalitatea ebaluatzeko mekanismo eta irizpideetan txertatzeko; kasurako, goi mailako hezkuntzaz eta garapen iraunkorrerako heziketaz arduratzen diren ministerioek eta haien administrazio bulegoek, Europako politiken arduradunek, finantzazio agentziek, unibertsitate kalitatea ebaluatzeko agentziek eta nazioarteko erakundeek. Garrantzitsua da, halaber, goi mailako hezkuntza sistemekin loturiko komunitateetako kide direnentzat: GKEentzat, profesionalen elkargoentzat, irakasle elkarteentzat, enpresentzat, trebatzaileentzat eta hezitzaile

profesionalentzat. Espero da agiria lagungarri izatea unibertsitate politikaren hainbat mailatan erabakiak hartzeko, hezitzaileen lanaz hausnartzeko eta lan hori ebaluatzeko, eta unibertsitateetan garapen profesionaleko taldeei laguntzeko, esperientzia eta inspirazio iturri gisa.

UE4SD proiektutik sortutako argitalpen hori Europako Batzordeak lagundu du diruz, Lifelong Learning programaren bidez. Esteka honetan eskura daiteke argitalpena: <http://www.ue4sd.eu/outcomes/111-leading-practice-publication-launched-at-the-ue4sd-annual-conference-in-madrid>

*Leading Practice Publication-i buruzko informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan Charles University in Prague unibertsitateko Work Package Leads Jana Dlouhá edo Dana Kapitulčinová doktoareekin: [jana.dlouha@czp.cuni.cz](mailto:jana.dlouha@czp.cuni.cz) eta [dana.kapitulcinova@czp.cuni.cz](mailto:dana.kapitulcinova@czp.cuni.cz).*

*UE4SD proiektuari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan University of Gibraltarreko Project Lead Daniella Tilbury irakaslearekin ([daniella.tilbury@unigib.edu.gi](mailto:daniella.tilbury@unigib.edu.gi)) edo University of Gloucestershireko Project Coordinatorarekin ([ue4sd@glos.ac.uk](mailto:ue4sd@glos.ac.uk)); bestela, jo ezazu proiektuaren webgunera: <http://www.ue4sd.eu>.*